

AURKIBIDEA

OSAKIDETZAREN 2021EKO ALDI BATERAKO KONTRATAZIOKO ZERRENDAK ERATZEA	3
1 Nola eman dezaket izena?	3
2 Zalantzarik izanez gero, nora jo dezaket?	3
3 Nork egin dezake Osakidetzako kontratazio-zerrendetan izena emateko eskabidea?	3
4 Zein dira Osakidetzako kontratazio-zerrendetan parte hartzeko baldintzak?.....	3
5 Ez daukat NANik. Dokumenturen bat aurkeztu behar al dut?.....	3
6 Zein zerrendatan eman dezaket izena?	4
7 Administrari laguntzaile eta administrari izateko titulazioak?.....	4
8 Mantentze-lanetako ofizial izateko titulazioak?	4
9 Sukaldari izateko titulazioak?.....	4
10 Erradiodiagnostikoko teknikari eta erradioterapiako teknikari izateko titulazioak?	4
11 Informatikako teknikari izateko titulazioak.....	4
12 Ofizial gidari izateko titulazioak	4
13 Jostundegiko ofizial izateko titulazioak.....	4
14 Zer epe dut izena emateko?.....	4
15 Nola sar naiteke eremu pribatuan eskabidea egiteko?	4
16 Laguntza behar dut eskabidea egiteko. Nola egingo dut eskabidea?.....	5
17 Nire eskabidea alda al dezaket?.....	5
18 Zenbat eskabide egin ditzaket? Zenbat zerrendatan eman dezaket izena?	5
19 Nola aurkez ditzaket baldintzak eta merezimenduak egiaztatzeko dokumentuak?	5
20 Nola egiaztatzen dira IT txartelaren ziurtagiriak CV aplikazioan?.....	5
21 Nola ziurtatzen dira Osakidetzan emandako zerbitzuak?.....	6
22 Nola ordenatzen dira zerrendak? Lehentasunik al dago? Nola ezartzen da baremoa?	6
23 Ez daukat Osakidetzako hizkuntza-eskakizunik egiaztatuta, baina badut beste euskara-ziurtagiri bat. Zein dira Osakidetzako euskara-ziurtagirien baliokidetasunak?	6
24 Zer zerrenda mota daude?.....	6
25 Izendapen laburren zerrendarako eta izendapen laburren barrutiko-zerrendarako destinoak hautatzea.....	6
26 Barrutiko izendapen luzeen zerrenda eta zerrenda horretarako destinoak hautatzea.....	7
27 2016/17ko EPEko deialdian sartu ez den edo, deialdia egin ondoren, kautelaz eten den kategoria bati dagokion zerrenda bateko kidea naiz. Zer aukera ditut?	7
28 2016/17ko EPEko deialdian sartu ez den edo, deialdia egin ondoren, kautelaz eten den kategoria bati dagokion zerrenda batean izena eman dezaket?	7
29 Noiz jarriko dira indarrean zerrendak?	7
30 Izena eman al dezaket zerrendetan behin epea amaitu dela?	8

31	ERANSKINA – TITULAZIOEN BALIOKIDETASUNAK.....	9
31.1	OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA ZUZENBIDE PRIBATUKO ENTITATE PUBLIKOAREN LANPOSTU FUNTZIONALAK ARAUTZEN DITUEN UZTAILAREN 19KO 186/2005 DEKRETUAN ESKATZEN DEN TITULAZIOA, ADMINISTRAZIOKO LAGUNTZAILEEN ETA ADMINISTRARIEN LANPOSTU FUNTZIONALETARAKO	9
31.2	LANPOSTU FUNTZIONALEI BURUZKO DEKRETUAN ADMINISTRARIA LANPOSTU FUNTZIONALERAKO EZARRITAKO TITULAZIOEN BALIOKIDEAK	9
31.3	LANPOSTU FUNTZIONALEI BURUZKO DEKRETUAN ADMINISTRAZIOKO LAGUNTZAILEEN ETA ERABILTZAILAEN ARRETAKO LANGILEAREN LANPOSTU FUNTZIONALERAKO EZARRITAKO TITULAZIOEN BALIOKIDEAK.....	10
31.3.1	LANPOSTU FUNTZIONALEI BURUZKO DEKRETUAN MANTENTZE-LANETAKO OFIZIALAREN LANPOSTU FUNTZIONALERAKO ESKATZEN DEN TITULAZIOA ETA HORIEN BALIOKIDETASUNAK.....	12
31.3.2	LANPOSTU FUNTZIONALEI BURUZKO DEKRETUAN SUKALDARIAREN LANPOSTU FUNTZIONALERAKO ESKATZEN DEN TITULAZIOA, ETA HORIEN BALIOKIDETASUNAK.....	15
31.3.3	LANPOSTU FUNTZIONALEI BURUZKO DEKRETUAN ERRADIODIAGNOSTIKOKO TEKNIKARI ETA ERRADIOTERAPIAKO TEKNIKARIAREN LANPOSTU FUNTZIONALERAKO ESKATZEN DEN TITULAZIOA, ETA HORIEN BALIOKIDETASUNAK.....	16
31.3.4	LANPOSTU FUNTZIONALEI BURUZKO DEKRETUAN MANTENTZE-LANETAKO OFIZIALEN LANPOSTU FUNTZIONALERAKO ESKATZEN DEN TITULAZIOA ETA HORIEN BALIOKIDETASUNAK. 17	
31.3.5	LANPOSTU FUNTZIONALEI BURUZKO DEKRETUAN OFIZIAL GIDARIAREN LANPOSTU FUNTZIONALERAKO ESKATZEN DEN TITULAZIOA.....	18
31.3.6	LANPOSTU FUNTZIONALEI BURUZKO DEKRETUAN JOSUNDEGIKO OFIZIALEN LANPOSTU FUNTZIONALERAKO ESKATZEN DEN TITULAZIOA ETA HORIEN BALIOKIDETASUNAK. 19	
32	ERANSKINA – OSAKIDETZAKO EUSKARA-ZIURTAGIRIEN BALIOKIDETASUNAK.....	20

1 Nola eman dezaket izena?

Eskabideak modu telematikoak bakarrik egingo dira, honako webgune honen bidez:

<http://www.osakidetza.euskadi.eus> Ibilbidea: **Enplegu publikoa/ Aldi baterako kontratazioa / Kontratazio-zerrendak 2021.**

Arretaz irakurri “dokumentu interesgarriak”.

2 Zalantzarik izanez gero, nora jo dezaket?

Aldi baterako kontratazioaren web-orrian aurkituko dituzu eskabidea egiteko jarraibideak. “Ohiko galderak” dituen dokumentu bat ere baduzu, lagungarria izango zaizuna prozesu horri buruzko zalantzak argitzeko.

Argibide gehiago nahi izanez gero, kontratazio-zerbitzuarekin harremanetan jar zaitezke, mezua hona bidalita:

✉ 2021lp-lc@osakidetza.eus

3 Nork egin dezake Osakidetzako kontratazio-zerrendetan izena emateko eskabidea?

2021eko kontratazio-zerrendetan parte hartu nahi duten pertsonak, baldintzak beteta, izena eman dezakete, Osakidetzako azken Enplegu Publikoaren Eskaintzan parte hartu ote duen alde batera utzita.

4 Zein dira Osakidetzako kontratazio-zerrendetan parte hartzeko baldintzak?

Osakidetzan estatutupeko lotura finkoa eskuratzeko hautaketa-prozesuak arautzen dituzten oinarri orokorretan aurreikusitako baldintzak bete behar ditu (Osakidetzaren azken Enplegu Publikoaren Eskaintzan oinarri orokorrak kontsultatu ditzakezu); funtsean, honako hauek dira:

a) Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko beste estatu kideren bateko nazionalitatea izatea, edo Europako Batasunak egindako eta Espainiako Estatuak berretsitako Nazioarteko Itunaren arabera, langileen joan-etorri askea aplikatu dakioken Estaturen bateko nazionalitatea izatea.

Atal horretan jasotzen da, era berean, onartuak izan daitezkeela aurreko paragrafoan aipatzen diren nazionalen ezkontideak, betiere zuzenbidez bananduta ez badaude, eta izangaiaren eta bere ezkontidearen ondorengoak, baldin eta bi ezkontideak ez badaude zuzenbidez bananduta, ondorengoak hogeita bat (21) urtetik beherakoak badira edo, adin horretatik gorakoak izanda ere, euren kargu bizi badira.

b) 16 urte beteta izatea eta nahitaezko erretiroko adina ez gainditzea.

c) Deialdian eskatutako titulazioa izatea edo titulazio hori emateko eskubideak ordaindu izana eskabideak aurkezteko epearen barruan.

5 Ez daukat NANik. Dokumenturen bat aurkeztu behar al dut?

Dagokion kontratazio-kudeaketarako unitateak jatorrizko dokumentua edo behar bezala konpultsatutako kopia (AIZ edo bestelako dokumentazioa) aurkezteko eskatuko dio eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren.

6 Zein zerrendatan eman dezaket izena?

Egiaztatu dezakezun titulazioa eskatzen dutenetan.

Sartzeko titulazioak Osakidetzako lanpostu funtzionalei buruzko dekretuan eta deitutako azken Enplegu Publikoaren Eskaintzan oinarri espezifikoetan arautzen dira.

7 Administrari laguntzaile eta administrari izateko titulazioak?

(Informazioa dokumentuaren amaierako dokumentu erantsian)

8 Mantentze-lanetako ofizial izateko titulazioak?

(Informazioa dokumentuaren amaierako dokumentu erantsian)

9 Sukaldari izateko titulazioak?

(Informazioa dokumentuaren amaierako dokumentu erantsian)

10 Erradiodiagnostikoko teknikari eta erradioterapiako teknikari izateko titulazioak?

(Informazioa dokumentuaren amaierako dokumentu erantsian)

11 Informatikako teknikari izateko titulazioak

(Informazioa dokumentuaren amaierako dokumentu erantsian)

12 Ofizial gidari izateko titulazioak

(Informazioa dokumentuaren amaierako dokumentu erantsian)

13 Jostundegiko ofizial izateko titulazioak

(Informazioa dokumentuaren amaierako dokumentu erantsian)

14 Zer epe dut izena emateko?

Eskabideak aurkezteko epea 2021eko urriaren 4ko 9:00etatik 2021eko azaroaren 4ko 14:00etara izango da.

15 Nola sar naiteke eremu pribatuan eskabidea egiteko?

Osakidetzan lanean ari bazara, zure NANarekin eta ordenagailura sartzeko pasahitzarekin sar zaitezke, edo "herritarrak" atalaren bidez, gaitutako edozein ziurtagiri digitalen bidez.

Osakidetzan lanean ari ez bazara, "herritarrak" ataletik sartu behar duzu. Zalantzarik baduzu, "Herritarren sarbiderako ohiko galderak" dokumentua kontsultatu dezakezu, Osakidetzaren aldi baterako kontratazioaren webgunean eskuragarri dagoena. Enplegu Publikoa Webgunera sartu ahal izateko beharrezkoa da:

- BakQ.
- Ziurtagi digitala.
- Cl@ve Iraunkorra.

16 Laguntza behar dut eskabidea egiteko. Nola egingo dut eskabidea?

Irakurri arretaz “izena emateko eskabidea egiteko jarraibideak”. Gure webgunean aurkituko dituzu erantzunak.

17 Nire eskabidea alda al dezaket?

Bai. Zerrendak eratzeko epean (2021eko urriaren 4ko 9:00etatik 2021eko azaroaren 4ko 14:00etara), nahi beste aldiz alda dezakezu zure eskabidea.

GARRANTZITSUA: kontuan izan baliozko eskabidea epea amaitu aurretik egindako azkena izango dela.

18 Zenbat eskabide egin ditzaket? Zenbat zerrendatan eman dezaket izena?

Izena eman nahi duzun zerrenda bakoitzerako eskabide bat egin behar duzu.

Eskabide bat egin ondoren, beste zerrenda baterako beste eskabide bat egiten duzunean, beteta agertuko da “datu pertsonalak” erlaitza.

Kontuan izan “eskabidearen datuak” erlaitza bete behar duzula, zerrenda bakoitzerako nahi dituzun destinoak aukeratuta.

19 Nola aurkez ditzaket baldintzak eta merezimenduak egiaztatzeko dokumentuak?

Eskabideko baldintza eta merezimenduen alegazioari buruzko atala bete behar duzu.

Atal hau “Datu pertsonalak / Jakinarazpenaren datuak / Deialdiaren datuak” ataleko bi erlaitzak bete ondoren soilik aktibatuko da.

Baldintza eta merezimenduen atalean, egiaztagiria mekanizatu eta erantsi beharko dituzu, dokumentazio hori Curriculum Vitae aplikazioan erregistratuta eta baliozkotuta dagoenean izan ezik.

Elektronikoki baliozkotuko da erantsitako dokumentazioa. Baliozkotze elektronikoa ezinezkoa bada, dagokion kontratazio-kudeaketarako unitateak jatorrizko dokumentua edo behar bezala konpultsatutako kopia aurkezteko eskatuko dizu (Eta, hala badagokio, itzulita), eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren.

Alegatutako baldintzak eta merezimenduak egiaztatzen dituzten agirietan faltsutze-zantzurik badago, Zigor Kodearen arabera jardungo du Osakidetzak, eta izangaia behin-behinean baztertuta geratuko da izena emateko eskabidea aurkeztu duen aldi baterako kontratazioko zerrenda guztietatik.

20 Nola egiaztatzen dira IT txartelaren ziurtagiriak CV aplikazioan?

Ez duzu zertan erregistratu CVan. IT txartelaren ziurtagiri guztiak automatikoki kargatuko dira.

Hauek dira IT txartela ezinbesteko baldintza duten kategoria bakarrak:

- Administrari laguntzailea.- Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 maila aurreratua eta Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarritzko maila.

- Administraria/.- Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 moduluak maila aurreratua, Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010, Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 maila aurreratua eta Microsoft Access 2000/XP/2003/2007 maila aurreratua (Access 2010 maila bakarra ez da maila aurreratutzat jotzen)

Deialdiaren oinarrien arabera baliokidetzat jotako IT Txartelaren modulu bakoitzaren bertsioen kasuan (2000/XP/2003/2007/2010), nahikoa izango da bertsio horietako bat egiaztatzea kasuan kasuko baldintza betetzat jotzeko.

Bertsio aurreratua egiaztatuz gero, ez da beharrezkoa izango modulu bereko oinarritzko bertsio a eskuratzea.

IT Txartela eskuratzeko azken eguna 2021eko kontratazio-zerrenden prozesuan izena emateko azken eguna izango da

21 Nola ziurtatzen dira Osakidetzan emandako zerbitzuak?

Automatikoki kargatzen dira. Ez da beharrezkoa erregistratzea.

22 Nola ordenatzen dira zerrendak? Lehentasunik al dago? Nola ezartzen da baremoa?

Zerrenda bakarra dago kategorialanpostu funtzional bakoitzerako. Hautagai guztiak puntuazioaren arabera ordenatuko dira.

Kontratazio-zerrendak eratzeko, EPEko nota, lan-esperientzia eta euskara baino ez dira kontuan hartzen. Puntuazioa baremo hauen emaitza da:

- a) EPEko oposizioaldiko puntuazioa: gehienez, 100 puntu.
- b) Lan-esperientzia: gehienez, 60 puntu. Kontuan hartuko dira:
 - Osakidetzan emandako zerbitzuak: 2020ko abenduaren 31ra arte
 - Osakidetzatik kanpo emandako zerbitzuak (enpresa pribatuan izandako esperientzia ez da kontuan hartzen): alegatu nahi den kategorian deitutako azken EPEan izena emateko eskabideak aurkezteko epearen azken egunera arte.
- c) Euskara: kategoriaren arabera: 24 puntu, 16 puntu edo 8 puntu.

23 Ez daukat Osakidetzako hizkuntza-eskakizunik egiaztatuta, baina badut beste euskara-ziurtagiri bat. Zein dira Osakidetzako euskara-ziurtagirien baliokidetasunak?

(Informazioa dokumentuaren amaierako dokumentu erantsian)

24 Zer zerrenda mota daude?

Izendapen laburren zerrendak, barrutiko izendapen laburren zerrendak, izendapen luzeen zerrendak eta barrutiko izendapen luzeen zerrendak.

25 Izendapen laburren zerrendarako eta izendapen laburren barrutiko-zerrendarako destinoak hautatzea.

Zerbitzu-erakunde batean edo bitan sartzeko eskabidea egin dezakezu.

Zerbitzu-erakunde bat edo bi aukeratuz gero, ZE bakoitzean honako hauek egin ahalko dituzu:

- a) ZE osoa aukeratu.
- b) Eremuka hautatu (lehen mailako arretaren eremua edo ospitale-eremua).
- c) Gehienez ere bost lehentasun aukeratu ahalko dira: ospitale-eremuaren eta lehen mailako arretako unitateen (LMAU) artean.

Bizkaiko Osasun Mentaleko Erakundearen kasuan, barne hartzen dituen lau eskualdeetako guztiak (Barrualdeko Eskualdea, Bilboko Eskualdea, Ezkerraldea eta Uribeko Eskualdea) edo baten bat aukeratu ahal izango da.

Ez badituzu hautatzen zerbitzuak emateko nahi dituzun zerbitzu-erakundeak eta zentroak, ulertuko da ez duzula izendapen laburren zerrendetan egon nahi.

Aldi baterako kontratazio-zerrenda bat eratuko da Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Barrutietarako.

Izendapen laburren zerrendetan Barruti horretan kokatutako gutxienez ZE bat hautatu dutenez osatuta egongo da zerrenda hori.

Erakunde jakin bateko izendapen laburren zerrenda agortzen bada erabiliko da barrutiko izendapen laburren zerrenda hau.

26 Barrutiko izendapen luzeen zerrenda eta zerrenda horretarako destinoak hautatzea.

Zerbitzuak emateko nahi dituzun ZEak hauta ditzakezu. Eremu geografiko gisa autonomia-erkidegoa duten ZE-en kasuan, lurralde-egoitza bat edo batzuk hauta ditzakezu.

Atal honetan ZERik aukeratzen ez baduzu, 3 barrutietako ZE guztiak aukeratu dituela ulertuko da, hurrengo atalean osasun-barruti bat edo batzuk aukeratu dituen alde batera utzita.

Gainera, gutxienez osasun-barruti bat hauta dezakezu.

Barruti-hautaketa hori egiten ez baduzu, ulertuko da prest zaudela izendapen luzeen zerrendan hautatu duzun ZEA dagoen barrutian izendapenak onartzeko.

Erakunde jakin bateko izendapen luzeen zerrenda agortzen bada erabiliko da barrutiko izendapen luzeen zerrenda hau.

27 2016/17ko EPEko deialdian sartu ez den edo, deialdia egin ondoren, kautelaz eten den kategoria bati dagokion zerrenda bateko kidea naiz. Zer aukera ditut?

Hauen artean aukeratu dezakezu:

- Beste eskabide bat egin, beste destino eta barruti batzuk hautatuta.
- Aurreko indarreko zerrendan egindako eskabideari eutsi. Kasu honetan, destino berriak ofizioz esleituko dira, indarreko aurreko zerrendetan hautatutako destinoak erreferentziatzat hartuta, eta zerrenden eta Osakidetzaren egitura berrira egokituta, web-orrian argitaratutako destinoen baliokidetasun-taulei jarraikiz. Adibidez: zuk Arabako Eskualdea hautatu bazenuen destino gisa, Prebentzioko, Segurtasuneko eta Higieneko Erdi Mailako Teknikaria kategorian, Arabako ESA destinoa esleituko zaizu kategoria berean.

Kategoria / Lanpostu funtzional bakoitzerako kontratazio-zerrenda bakar bat sortuko da, eta zerrenda horretan egongo dira bai kategoria / lanpostu funtzional horretako kideak, bai beste izen-emate bat egiten dutenak. Horretarako, izena eman duten pertsona berriei merezimenduen baremoak ezarriko zaizkie, izena eman dutenei aplikatu beharreko datak baliatuta, eta zerrenda bakarra puntuazio-ordenaren arabera ordenatuko da.

28 2016/17ko EPEko deialdian sartu ez den edo, deialdia egin ondoren, kautelaz eten den kategoria bati dagokion zerrenda batean izena eman dezaket?

Bai. Kategoria / Lanpostu funtzional bakoitzerako kontratazio-zerrenda bakar bat sortuko da, eta zerrenda horretan egongo dira bai kategoria / lanpostu funtzional horretako kideak, bai beste izen-emate bat egiten dutenak. Horretarako, izena eman duten pertsona berriei merezimenduen baremoak ezarriko zaizkie, izena eman dutenei aplikatu beharreko datak baliatuta, eta zerrenda bakarra puntuazio-ordenaren arabera ordenatuko da.

29 Noiz jarriko dira indarrean zerrendak?

2021eko kontratazio-zerrendak behin betiko zerrendak argitaratzen direnean hasiko dira indarrean. Hori baino lehen, behin-behineko zerrendak argitaratuko dira, eta erreklamazioak aurkezteko epea ere emango da.

30 Izena eman al dezaket zerrendetan behin epea amaitu dela?

Bai. Aldi baterako kontratazioko zerrendak, eratu ondoren, irekita egongo dira beti, eta edozein unetan erregistratu ahal izango dira izena emateko eskabideak. Izena emateko eskabideak aurkezpen-dataren arabera ordenatuko dira.

Izen-emate berri horiek urtean bitan sartuko dira indarreko zerrendetan, honako zerrenda hauen kasuan: Fakultatibo Medikoak, Psikologia Klinikoko Fakultatibo Espezialista Teknikoak, Ospitale Farmaziako Fakultatibo Espezialista Teknikoak, Erizainak, Erizaintzako Espezialitateak eta Fisioterapeutak.

Gainerako zerrendetarako, jada osatutako indarreko zerrendetan gehitzeko eskabide berrien integrazioa egun jakin batera arte aurkeztutakoekin egingo da (etendura-data); data hori Giza Baliabideen Zuzendaritzaren ebazpen bidez ezarriko da kategoria / lanpostu funtzional bakoitzerako.

KONTRATAZIO-ZERBITZUA

31 ERANSKINA – TITULAZIOEN BALIOKIDETASUNAK

31.1 OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA ZUZENBIDE PRIBATUKO ENTITATE PUBLIKOAREN LANPOSTU FUNTZIONALAK ARAUTZEN DITUEN UZTAILAREN 19KO 186/2005 DEKRETUAN ESKATZEN DEN TITULAZIOA, ADMINISTRAZIOKO LAGUNTZAILEEN ETA ADMINISTRARIEN LANPOSTU FUNTZIONALETARAKO

ADMINISTRARIA	Administrazio eta finantzetako goi-mailako teknikaria, idazkaritzako goi-mailako teknikaria edo titulazio baliioduna*
ADMINISTRAZIOKO LAGUNTZAILEA ETA ERABILTZAILEEN ARRETAKO LANGILEA Administrazio-kudeaketako teknikaria, titulazio baliokidea*	

31.2 LANPOSTU FUNTZIONALEI BURUZKO DEKRETUAN ADMINISTRARIA LANPOSTU FUNTZIONALERAKO EZARRITAKO TITULAZIOEN BALIOKIDEAK

TEKNIKARI ESPEZIALISTA , Hezkuntzari eta Hezkuntza Erreformaren Finantzaketari buruzko abuztuaren 4ko 14/1970 LEGEARENA .
TEKNIKARI ESPEZIALISTA (BIGARREN MAILAKO LH ETA III. MAILAKO MODULU PROFESIONALAK) , Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrari buruzko urriaren 3ko 1/1990 LEGE ORGANIKOARENA .
ADMINISTRAZIO ETA FINANTZETAKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA, 777/1998 ERREGE DEKRETUARENA (administrazio eta finantzetako goi-mailako teknikaria eta idazkaritzako goi-mailako teknikaria aztertzen ari garen kasuetan).
Batxilergo-titulua (BBB, 14/1970 Legea). Goi-mailako batxilergoko edozein titulu (orokorra, lanekoa edo teknikoa).
Goi-mailako lanbide-heziketan, arte plastikoetako eta diseinuko goi-mailako ikasketa profesionaletan eta goi-mailako kirol-irakaskuntzetan sartzeko proba gainditzea batxilertituluaren baliokidea izango da, enplegu publiko eta pribatuetan sartzeko baino ez, betiere Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua edo baliokide akademikoa duela egiaztatzen badu interesdunak.
Hemeretzi urtetik gorakoentzako goi-mailako arte-irakaskuntzetarako sarbide-proba gainditzea batxilertituluaren baliokidea izango da, enplegu publiko eta pribatuetarako sarbidearen ondorioetarako bakarrik, baldin eta honako baldintza hauetakoren bat egiaztatzen bada: <ul style="list-style-type: none">• Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua edo ondorio akademikoetarako baliokidea den titulua izatea.• EDU/1603/2009 Aginduaren 3. artikuluko 1. puntuan ezarritako baliokidetasuna izatea.
Goi-mailako gutxienez 15 ECTS kreditu gainditu izana (EDU/1603/2009 Aginduaren 5. xedapen gehigarria kontuan hartzea, EDU/520/2011 Aginduaren idazketaren arabera) goi-mailako arte-irakaskuntzetan.

<p>Hogeita bost urtetik gorakoek unibertsitatean sartzeko duten proba gainditzea, betiere honako baldintza hauetakoren bat betetzen dela egiaztatzen bada, edo Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua edo horren baliokidea izatea ondorio akademikoetarako edo lanbide-ondorioetarako, edo unibertsitate-ikasketetako 15 ECTS kreditu gutxienez gainditu izana (EDU/1603/2009 Aginduaren 5. xedapen gehigarria, EDU/520/2011 Aginduak aldatua).</p> <p>Ez du baliorik izango, lanbide-ondorioetarako, DBHko graduatu-tituluarekiko baliokidetasunak, EDU/520/2011 Aginduaren 3.5 artikuluan ezarritakoaren arabera lortutakoak.</p> <p>LOGSEren aurreko batxilergoren bateko ikasketa partzialak, Oinarrizko Batxilergoa izan ezik, baldin eta egiaztatzen bada bere garaian gainditu gabe zegoela goi-mailako proba edo errebalida edo dagokion batxilergoko gehienez bi ikasgai.</p>
<p>Lanbide-heziketako teknikariaren, arte plastikoetako eta diseinuko teknikariaren edo kirol-teknikariaren titulua, edozein modalitatetan.</p>
<p>14/1970 Legearen –Hezkuntza Lege Orokorraren– teknikari laguntzailearen titulua.</p>
<p>Agiri ofizialen bidez egiaztatzea EDU/520/2011 Aginduaren II. eranskinean zerrendatutako arte-irakaskuntzako ikasketa jakin batzuk gainditu direla. *</p> <p>* Egiaztatu nahi den dokumentazioari dagokion hezkuntza-administrazioak emandako banakako ebazpena beharrezkoa da.</p>

Arau erregulatzailea: 2/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 3koa, Hezkuntzari buruzkoa (2006ko maiatzaren 4ko BOE), EDU/1603/2009 Agindua –EDU/520/2011 Agindu bidez aldatua–, zeinaren bidez Hezkuntzari buruzko Lege Organikoan araututako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko graduatu-tituluekin baliokidetasunak ezartzen baitira.

31.3 LANPOSTU FUNTZIONALEI BURUZKO DEKRETUAN ADMINISTRAZIOKO LAGUNTZAILEEN ETA ERABILTZAILEEN ARRETAKO LANGILEAREN LANPOSTU FUNTZIONALERAKO EZARRITAKO TITULAZIOEN BALIOKIDEAK

<p>TEKNIKARI LAGUNTZAILEA, Hezkuntzari eta Hezkuntza Erreformaren Finantzaketari buruzko abuztuaren 4ko 14/1970 LEGEARENA.</p>
<p>TEKNIKARI LAGUNTZAILEA (LEHEN MAILAKO LH ETA II. MAILAKO MODULU ESPERIMENTALAK), Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrari buruzko urriaren 3ko 1/1990 LEGE ORGANIKOARENA.</p>
<p>777/1998 ERREGE-DEKRETUKO DAGOKION LANBIDEKO TEKNIKARIA (aztergai dugun kasuan, administrazio-kudeaketako teknikaria).</p>
<p>Eskola-graduatuaren ziurtagiria.</p>
<p>Giza Zientzietako 6 ikasturte oso eta, gutxienez, Filosofiako ikasturte oso bat, edo bestela, Giza Zientzietako 5 ikasturte oso eta eliza-ikasketen Filosofiako gutxienez 2.</p>
<p>25 urtetik gorakoek unibertsitatean sartzeko proba gaindituta izatea.</p>

Hauetan sartzeko proba gainditzea:

- erdi- edo goi-mailako arte plastikoetako eta diseinuko ikasketa profesionalak,
- erdi- edo goi-mailako lanbide-heziketa,
- erdi edo goi mailako kirol ikasketak,
- goi-mailako arte-irakaskuntzak 19 urtetik gorakoentzat

eta baldintza hauetako gutxienez bat ziurtagiri bidez frogatzea:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen bi ikasturteetako ikasgai guztiak gainditzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloa eginda izatea eta heziketa-zikloaren iraupen osoaren erdia, gutxienez, osatzen duten lanbide-moduluen kopurua gaindituta izatea.
- Goi-mailako zikloa eginda izatea eta heziketa-zikloaren iraupen osoaren herena, gutxienez, osatzen duten lanbide-moduluen kopurua gaindituta izatea.
- Goi-mailako gutxienez 10 ECTS kreditu gainditu izana (EDU/1603/2009 Aginduaren 5. xedapen gehigarria kontuan hartzea, EDU/520/2011 Aginduaren idazketaren arabera) goi-mailako arte-irakaskuntzetan.
- DBHko hirugarren mailan sartzeko Espainiako hezkuntza-sisteman eskatzen den eskolatzeko-mailaren baliokideak diren atzerriko ikasketak izatea egiaztatzea.
- Helduentzako bigarren hezkuntzako I. mailako esparru guztiak gainditzea.

Oinarrizko Batxilergoko edozein titulu izatea edo honako hauek gainditzea:

- a) Batxilergoko lau ikasturte oso, abuztuaren 4ko 14/1970 Legearen aurreko edozein ikasketa-planengatik, proba orokorrik edo errebalidarik gabe.
- b) Batxilergo teknikoko edo lan-batxilergoko bost urte, multzo-probarik gabe edo errebalidarik gabe.
- c) Eliza-karreraren Giza Zientzietako lau ikasturte oso.

1945/07/17 Legearen eta 21/12/1965 Legearen ondoriozko Lehen Mailako Ikasketen Ziurtagiria.

Lehen mailako ikasketen ziurtagiria lortzeko baldintzak bete izanaren egiaztatzea.

* Egiaztatu nahi den dokumentazioari dagokion hezkuntza-administrazioak emandako banakako ebazpena beharrezkoa da.

Erregulatzeko araudia: 2/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 3koa, Hezkuntzari buruzkoa (2006ko maiatzaren 4ko BOE), EDU/1603/2009 Agindua –EDU/520/2011 Agindu bidez aldatua–, zeinaren bidez Hezkuntzari buruzko Lege Organikoan araututako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko graduatu-tituluekin baliokidetasunak ezartzen baitira.

31.3.1 LANPOSTU FUNTZIONALEI BURUZKO DEKRETUAN MANTENTZE-LANETAKO OFIZIALAREN LANPOSTU FUNTZIONALERAKO ESKATZEN DEN TITULAZIOA ETA HORIEN BALIOKIDETASUNAK.

LANPOSTU FUNTZIONALAK	Lanpostu funtzionalei buruzko eskatzen diren titulazioak	Titulazio baliokideak Hezkuntza-sistemaren esparruan lanbide-heziketaren antolamenduaren zenbait alderdi garatzen dituen apirilaren 30eko 777/1998 Errege Dekretuan.	Titulazio berriak: Horiek sortzeko dekretuetan ezarritako baliokidetasunak.
INSTALAZIOEN MANTENTZE-LANETAKO OFIZIALA	TEKNIKARIA (mantentze-lanetako ofizialaren titulazioak)		
MANTENTZE-LAN ELEKTRIKOETAKO OFIZIALA	Ekipamendu eta instalazio elektroteknikoetako teknikariaren titulua	Elektrizitateko teknikari laguntzailea (Elektrizitatea eta Elektronika) * Elektrizitateko instalatzaile-mantentzailea (Elektrizitatea eta Elektronika)	Instalazio elektriko eta automatikoetako teknikariaren titulua, otsailaren 8ko 177/2008 Errege Dekretuaren bidez sortua.
MANTENTZE-LAN MEKANIKOETAKO OFIZIALA	Makineriako eta linea-gidaritzako instalazio eta mantentze-lan elektromekanikoetako teknikaria	* Lineako mantentze-lanak (metala) * Mantentze-lan industrialak (metala)	Mantentze-lan elektromekanikoetako teknikaria, azaroaren 4ko 1589/2011 Errege Dekretu bidez sortua.

LANPOSTU FUNTZIONALAK	Lanpostu funtzionalei buruzko Dekretuan eskatzen diren titulazioak	Titulazio baliokideak Hezkuntza-sistemaren esparruan lanbide-heziketaren antolamenduaren zenbait alderdi garatzen dituen apirilaren 30eko 777/1998 Errege Dekretuan.	Titulazio berriak: Horiek sortzeko dekretuetan ezarritako baliokidetasunak.
BEROKUNTZAKO ETA ITURGINTZAKO MANTENTZE- LANETAKO OFIZIALA	Hotzeko, klimatizazioko eta bero-sorkuntzako muntaketako eta mantentze-lanetako teknikaria	Iturgintzako teknikari laguntzailea (eraikuntza eta obrak) * Ur, gas eta berokuntzako instalazioak (eraikuntza eta obrak) * Hotz- eta bero-ekipamenduen instalazioa eta mantentze-lanak (elektrizitatea eta elektronika)	Bero-sorkuntzako instalazioetako teknikariaren titulua, abenduaren 30eko 1792/2010 Errege Dekretuaren bidez sortua. Hozte- eta klimatizazio-instalazioen teknikariaren titulua, abenduaren 30eko 1793/2010 Errege Dekretuaren bidez sortua.
IGELTSEROTZAKO MANTENTZE- LANETAKO OFIZIALA	Igeltserotza- obretako teknikaria	- Igeltserotzako teknikari laguntzailea (eraikuntza eta obrak) - Teilatu-emaile teknikari laguntzailea (eraikuntza eta obrak) * Igeltserotza (eraikuntza eta obrak) * Eraikin-estalketa (eraikuntza eta obrak)	Eraikuntza-teknikaria, azaroaren 4ko 1575/2011 Errege Dekretu bidez sortua.
ZURGINTZAKO MANTENTZE- LANETAKO OFIZIALA	Zurgintza-instalazioen eta altzarien neurrirako fabrikazioko teknikaria	- Zurgintzako teknikari laguntzailea (zura) * Zurgintza eta altzariak (zura)	Altzari-instalazioko eta - hornikuntzako teknikariaren titulua, ekainaren 24ko 880/2011 Errege Dekretuaren bidez sortua.

<p>PINTURAKO MANTENTZE- LANETAKO OFIZIALA</p>	<p>Eraikuntza-akaberetako teknikaria</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Dekorazio-pintura (eraikuntza eta obrak) - Pintura (eraikuntza eta obrak) - Dekorazioa (eraikuntza eta obrak) *Eraikuntza-akaberak (eraikuntza eta obrak) *Pintura-zaharberitzea (eraikuntza eta obrak) *Pintura-teknikak (eraikuntza eta obrak) 	<p>Barneko obretako, dekorazioko eta zaharberitzeko teknikariaren titulua, azaroaren 18ko 1689/2011 Errege Dekretuaren bidez sortua.</p>
---	--	---	--

31.3.2 LANPOSTU FUNTZIONALEI BURUZKO DEKRETUAN SUKALDARIAREN LANPOSTU FUNTZIONALERAKO ESKATZEN DEN TITULAZIOA, ETA HORIEN BALIOKIDETASUNAK.

LANPOSTU FUNTZIONALA	Lanpostu funtzionalei buruzko eskatzen diren titulazioak	Titulazio baliokideak Hezkuntza-sistemaren esparruan lanbide-heziketaren antolamenduaren zenbait alderdi garatzen dituen apirilaren 30eko 777/1998 Errege Dekretuan.	Titulazio berriak: Horiek sortzeko dekretuetan ezarritako baliokidetasunak.
SUKALDARIA	Sukaldaritzako goi-mailako teknikaria	Ostalaritzako teknikari espezialista	Sukaldaritzazuzendaritzako goi-mailako teknikaria, maiatzaren 20ko 687/2010 Errege Dekretu bidez sortua. Sukaldaritzazerbitzuen zuzendaritzako goi-mailako teknikaria, maiatzaren 20ko 687/2010 Errege Dekretu bidez sortua.

31.3.3 LANPOSTU FUNTZIONALEI BURUZKO DEKRETUAN ERRADIODIAGNOSTIKOKO TEKNIKARI ETA ERRADIOTERAPIAKO TEKNIKARIAREN LANPOSTU FUNTZIONALERAKO ESKATZEN DEN TITULAZIOA, ETA HORIEN BALIOKIDETASUNAK.

LANPOSTU FUNTZIONALA	Lanpostu funtzionalei buruzko eskatzen diren titulazioak	Titulazio baliokideak Hezkuntza-sistemaren esparruan lanbide-heziketaren antolamenduaren zenbait alderdi garatzen dituen apirilaren 30eko 777/1998 Errege Dekretuan.	Titulazio berriak: Horiek sortzeko dekretuetan ezarritako baliokidetasunak.
ERRADIODIAGNOSTIKOKO TEKNIKARIA	Diagnosirako irudietako goi-mailako teknikaria.	Erradiodiagnostikoko teknikari espezialista	Diagnosirako irudietako eta medikuntza nuklearreko goi-mailako teknikaria, irailaren 12ko 770/2014 Errege Dekretu bidez sortua.
ERRADIOTERAPIAKO TEKNIKARIA	Erradioterapiako goi-mailako teknikaria	Erradioterapiako teknikari espezialista Medikuntza nuklearreko teknikari espezialista	Erradioterapiako eta dosimetriako goi-mailako teknikaria, irailaren 12ko 772/2014 Errege Dekretu bidez sortua.

31.3.4 LANPOSTU FUNTZIONALEI BURUZKO DEKRETUAN MANTENTZE-LANETAKO OFIZIALEN LANPOSTU FUNTZIONALERAKO ESKATZEN DEN TITULAZIOA ETA HORIEN BALIOKIDETASUNAK.

LANPOSTU FUNTZIONALA	Lanpostu funtzionalei buruzko eskatzen dituzten titulazioak	Titulazio baliokideak Hezkuntza-sistemaren esparruan lanbide-heziketaren antolamenduaren zenbait alderdi garatzen dituen apirilaren 30eko 777/1998 Errege Dekretuan.	Titulazio berriak: Horiek sortzeko dekretuetan ezarritako baliokidetasunak.
INFORMATIKAKO TEKNIKARIA	<p>Informatika-sistemen administrazioko goi-mailako teknikaria</p> <p>Aplikazio informatikoen garapeneko goi-mailako teknikaria</p>	<p>Enpresako informatikako teknikari espezialista</p> <p>Enpresako informatikako teknikari espezialista</p> <p>Enpresa-informatikako teknikari espezialista</p> <p>Kudeaketa-informatikako teknikari espezialista</p> <p>Administrazio-kudeaketako programatzaile teknikari espezialista</p> <p>Kudeaketa-aplikazioko programatzaile teknikari espezialista</p> <p>3. mailako modulu profesionala - Kudeaketa-informatikako programatzailea</p> <p>3. mailako modulu profesionala - Kudeaketa-programatzailea</p>	<p>Sareko informatika-sistemen kudeaketako goi-teknikaria, urriaren 30eko 1629/2009 Errege Dekretu bidez sortua.</p> <p>Plataforma anitzeko aplikazioen garapeneko goi-mailako teknikaria, maiatzaren 16ko 450/2010 Errege Dekretuak araututakoarekin bat.</p>

31.3.5 LANPOSTU FUNTZIONALEI BURUZKO DEKRETUAN OFIZIAL GIDARIAREN LANPOSTU FUNTZIONALERAKO ESKATZEN DEN TITULAZIOA.

LANPOSTU FUNTZIONALA	Eskatzen diren tituluak
ZERBITZU OROKORRETAKO OFIZIAL GIDARIA	Edozein teknikari-titulazioa edo baliokidea + B klaseko gidabaimena
GARRAIO SANITARIOAREN OFIZIAL GIDARIA	Edozein teknikari-titulazioa edo baliokidea + B klaseko gidabaimena*
LARRIALDIETAKO IBILGAILUETAKO OFIZIAL GIDARIA	Larrialdi sanitarioen teknikaria edo dagokion gaikuntza + B eta C klaseko gidabaimenak**

***Garraio Sanitarioaren Ofiziala Gidaria** lanpostu funtzionalean, pazienteen garraio ez-asistentzialerako edo gaixoen garraiorako (A1 motako eta A2 motako anbulantziak), **garraio sanitarioko profesionaltasun-ziurtagiria edo dagokion gaitasun-agiria** ere eskatuko da.

** **Larrialdietako Ibilgailuetako Ofizial Gidaria** lanpostu funtzionalean, bertan tresneria sartzearen ondorioz anbulantziek 3.500 kg-ko muga gainditzen dutenez, **C motako gidabaimena** edukitzea beharrezkotzat jotzen da.

Halaber, adierazten da **interesdunek inskripzio-eskabidean, Curriculum Vitae aplikazioko beste merezimendu batzuen atalean, C eta D gidabaimenak alegatu eta egiaztatu beharko dituztela**. Gidabaimenak betekizun gisa hartuko dira gidatu beharreko ibilgailuaren eta indarrean dagoen araudiaren arabera, eskaintzen den izendapenaren arabera.

31.3.6 LANPOSTU FUNTZIONALEI BURUZKO DEKRETUAN JOSUNDEGIKO OFIZIALEN LANPOSTU FUNTZIONALERAKO ESKATZEN DEN TITULAZIOA ETA HORIEN BALIOKIDETASUNAK.

LANPOSTU FUNTZIONALA	Lanpostu funtzionalei buruzko Dekretuan eskatzen diren titulazioak	Titulazio baliokideak Hezkuntza-sistemaren esparruan lanbide-heziketaren antolamenduaren zenbait alderdi garatzen dituen apirilaren 30eko 777/1998 Errege Dekretuan.	Titulazio berriak: Horiek sortzeko dekretuetan ezarritako baliokidetasunak
JOSTUNDEGIKO OFIZIALA	Jantzigintzako-teknikaria	Moda eta jantzigintzako teknikari laguntzailea, moda eta jantzigintzako adarra Industria-jantzigintzako teknikari laguntzailea, moda eta jantzigintzako adarra	Jantzigintzako eta modako teknikaria

OSAKIDETZA	1. HE	2. HE	3. HE	4. HE
Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratua	B1	B2	C1	C2
HAEE	1. Hizkuntza Eskakizuna:	2. Hizkuntza Eskakizuna:	3. Hizkuntza Eskakizuna C1	4. Hizkuntza Eskakizuna:
HABE	B1 maila - 1. maila	B2 maila - 2. maila	Maila- 3. Maila	C2 maila - 4. maila
Ertzaintza		1. Hizkuntza Eskakizuna:	2. Hizkuntza Eskakizuna	
Hezkuntza Saila		1. HE Irakasleak	2. HE Irakasleak EGA eta baliokideak	
Euskaltzaindia			D ziurtagiria	B ziurtagiria
Hizkuntza Eskola Ofizialak	Euskarako hirugarren ikasturtea (Antzinako ikasketa-plana) Erdi-maila Erdi-maila B1	Laugarren euskara-maila (Antzinako ikasketa-plana) Goi-maila Erdi-maila B2	Bosgarren euskara-maila edo Gaitasun Agiria (antzinako ikasketa-plana) Gaitasun Maila (C1) Goi-maila C1	
Nafarroako Gobernua - Hezkuntza Departamentua			EGA	
Office Public de la Langue Basque			EGA	
Ikasketa akademikoak euskaraz	Derrigorrezko bigarren hezkuntzako graduatuaren edo teknikariaren titulua	Batxilergo-titulua edo goi-mailako teknikaria	Unibertsitateko titulua	-Doktore-titulua (tesia euskaraz). -Euskal Ikasketetako Gradua edo Euskal Filologiako Gradua. -Itzulpengintza eta Interpretazioko Gradua. -Euskal Hizkuntza eta Kulturako Gradua.

